



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LEMOAKO UDALAREN 2004-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Lemoako Udalaren 2004ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegiak udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Aurrekontuaren atalean, Erakunde Fiskalizatzaileak adierazi du aurrekontu izendapenik gabe gastuak exekutatzeko arautegia urratzen duela; baita horretarako eskumena ez duen atalak aurrekontuan aldaketak onestea ere.

Arautegi fiskalari dagokionez, Udalak urratu egin ditu zerga betebeharrak, ez baitu hirugarrenetik eragiketen urteko aitorpena aurkeztu.

Diru-laguntzen alorrean, HKEEk azpimarratu du diru-laguntza bat eman zaiola hondakin uren bideraketa finantzatzeko sektoreko urbanizazioaren arduradun den administrazio elkarteari; ordea, diru-laguntza horren onuradunak udal eta partzuergoek izan behar dute.

Administrazio kontratazioari dagokionez, txostenak hainbat ez-betetze mahairatu ditu, horien artean aipatzekoak lehenago esleituak izan ziren bi obraren esleipena. Bigarren esleipen hau Hornidura eta Saneamenduaren Tokiko Planaren diru-laguntza eskuratzeko egin zen. Bestalde, Udalerrian egindako bost lanek % 50etik gorako kostu igoerak izan dituzte. Hiru kontratazio espediente okerreko prozedura bitartez esleitu dira eta bi obra kontratu horretarako eskumenik ez duen atalak gauzatuta.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez, bi salbuespen egin dituela: bata, ibilgetuko gaien zerrendarik ez izategatik; eta bestea, kontabilitateari egindako hainbat doiketengatik, Diruzaintza Geldikina 583 mila euroan murriztu dutenak.

Halaber, HKEEk aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta artekaritzaren alorrean barne kontrolaren sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen egin ditu.

Azkenik, Udalari finantza egoerak zuzentzeko gomendioa luzatu zaio, HKEEk txostenean proposatutako doiketak barne direla.